

ENPRESA IDEIA DEFINITZEN



Oier Arraztio
Harriet Urdampileta
Garazi Etxarte
Garazi Aizpurua

Enpresa ideiak:

- Asmatu gabeko zerbait
- Enpresa bat sortu ingurunea hobetzeko eta kutsadura murrizteko.

1.-BEHARRAK DETEKTATU:

- **Zer botatzen dut faltan gizartean?**

Gizarte honetan autoen bidez, zaborraren bidez... asko kutsatzen dugula jabetu gara. Eta horrek horrela jarrai ez dadin kutsadura murrizteko eta gure ingurunea txukun eta ongi mantentzeko enpresa bat sortu nahiko genuke. Horrez gain, inguruan belardiak, mendiak eta horrelako zonalde naturalak sumatzen ditugu faltan eta leku hauek dira munduaz leku hobeto bat egiten dutenak.

- **Zer behar daude?**

Gizarte honetan, behar asko daude baina guretzat beharrezkoena gizabanakoa kontzientziatzea da, izan ere, planeta honetan ingurua zaindu nahi badugu, pertsona bakoitzaren laguntza eta inplikazioa beharrezkoa da. Beraz, gure proiektuarekin egin nahi duguna da, hobekuntzak egiteaz aparte, jendea gure proiektuan murgiltzea ezinbestekoa da.

2.- GURE EKARPENA DEFINITU:

- **Zertan gara onak?**

Esan dezakegu gure taldea nahiko osatuta dagoela, nahiz eta pertsona batzuk alor batzuetan hobeto moldatu beste batzuk baino eta aldrebes eta hainbat aspektu ezberdinetan ondo molda gaitzkeela denen artean lan egiten badugu. Gainera, taldekideen artean harreman ona daukagu eta hori oso ondo datorkigu taldean lan egiteko. Gure buruagan konfiantza handia dugu eta horrek asko laguntzen digu, positiboki pentsatzen dugulako eta lanean aritzeko motibatzen gaituelako. Baita ere, ikusmen handiko pertsonak garelako esan dezakegu. Egiten dugun lana oso ongi egiten saiatzen gara, hau da, lana kalitatez egiten dugu. Sormenarekin normalean ez dugu arazorik izaten. Talde batean gidaritzan lan egiten duen pertsona bat edukitzea beharrezkoa da, eta taldean badugu pertsona bat, eta orokorrean jende aurrean hitz egiteko arazorik ez dugu.

- **Zein dira gure interesak?**

Balio ekonomikoaz hitz egin gabe, hau da, diru sarrerak alde batera utzita, gure interes nagusia kutsatzen ez duen produktu edo zerbitzu bat sortzea izango litzake, ingurunea zaintzearekin batera kontsumitzaileen nahiak asetuko dituen, eta honekin gure enpresaren hazkuntza eta hedadura posible egingo lukeena. Kontsumitzaileen edo familien interesak kontuan izan behar dira beti neurri batean.

- **Zer ekarpen egin dezakegu?**

Gure gogo eta ilusioari esker, mundu hau hobea bilakatzeko ideiak sortu ditzakegu eta gainera, enpresa bat sortu non jendea identifikatua sentitu daiteken eta gurekin elkarlanean aritu, izan ere, denontzat baliagarria den zerbaitetan egingo genukeen lan.

3.- BRAINSTORMING:

1.FASEA

- **Ideiak:**

- Estutxe enpresa bat sortu dezakegu
- Birziklatzeko era ekologikoagoa
- Jendearen ideiak jasotzeko webgunea izan
- **Natura edo ingurumena babesteko enpresa bat**
- **Parke naturalak babestea bertan zuhaitzak, belardiak... landatzeko enpresa**
- Kontaminazioaren aurkako enpresa
- Arropa saltzeko enpresa bat
- **Birziklatutako materialekin produktu ezberdinak sortzeko enpresa (arropa, tresnak, liburuak, estutxeak...)**
- Pobreak edo zailtasunak dituen jendearentzat ONG bat sortu
- Langabezia gutxitzeko lagungarria izan daiteken mugimendu bat
- Euskara sustatzeko, mundu mailan zabalduko sal-erosketa enpresa Euskalduna egitea (Wallapop-en modukoa)
- **Kontainerrak sortu bertara jendeak hondakinak botatzeko**

2.FASEA

Ideia guztiak baloratu eta gero, gure nahietara gehien egokitzen diren ideiak edo proposamenak honako hauek dira: Zuhaitzak, belardiak eta modukoak landatzea, eta

horiekin parke naturala osatzea, kontaminazioaren aurkako enpresa bat sortzea, ingurumena zaintzen saiatzea edo enpresa bat non birziklatutako materialarekin arropa, liburuak eta tresna ezberdinak ekoizten ditugu. Horiek aukeratu ditugu ideia nagusiak bezala, izan ere, gure helburua ingurumena hobetzea da eta horiek izan daitezke ideia originalenak eta arrakasta gehien izan dezaketenak. Besteak baztertu egin ditugu, zehaztasun faltarengatik, ez baitziren ideia oso garatuak eta gainera mundu mailan asko errepikatzen diren proiektu ideiak aipatu ditugu.

3.FASEA

Gure helburua ingurumena zaintzea eta hobetzea da. Horretarako egokia ikusten dugu natura edo ingurumena babesteko enpresa bat sortzea, bertan parke naturalak babestuko genituzke, parke naturalean zuhaitzak, belardiak... landatuko genituzke. Gure enpresako kontainerrak sortuko genituzke bertara jendeak hondakinak botatzeko, eta hortik lortutako hondakinekin, eta ingurunean jasotako hondakinekin produktu ezberdinak sortuko genituzke, arropa, tresnak, liburuak, estutxeak... Horrez gain, web orri bat sortuko dugu, mundu guztiak gurekin lan egin ahal izateko eta gure produktuak saltzeko prozesua eta aukerak errazteko.

4.- ENPRESA IDEIA:

Esan dugun bezala, gure helburua ingurumena zaintzea da. Horretarako enpresa bat sortuko dugu, eta bertan jarduera ezberdinak egingo ditugu, hau da, ingurumena zaintzeko gauza ezberdinak egiten dituzten enpresak egon beharrean, enpresa bakar batean egingo ditugu gauza guzti horiek. Gure eginkizun nagusia, hondakinak birziklatzea eta horiekin produktu ekologikoak sortzea eta saltzea izango da. Lortutako diru sarrerekin, enpresa garatzeaz gain eta gure langileei ordaintzeaz gain, hori erabiliko dugu zuhaitzak... landatzeko eta horrela parke naturalak osatzeko.

Horretarako, diru sarrera bat izan beharko dugu enpresa martxan jarri ahal izateko, ondoren, ingurunean dauden hondakinak bilduko ditugu eta horiekin gure enpresaren produktuen ekoizpena martxan jarriko dugu, material horiek produktu organiko eta ekologikoetan bilakatuz. Jarraitzeko, webgunea erabiliz, produktu horiek merkatuan jarriko ditugu eta diru sarrera berri horiekin zuhaitzak eta belardiak landatzeko gai izango gara, naturari lagunduz eta gure helburua lortuz.